


Ondare artistikoa

Aizpea: XVIII. mendekoa
Arretxe: XVII. mendearen bukaerakoa
Arterrela errota: XIX. mendekoa
Artzadun Bitarte: XVI. mendekoa. Tolare gotikoaren aztarnak. Berreraikia
Artzadun Domingonea: XVI. mendekoa
Andre Maria parrokia: XVI. mendearen hasierakoa. Gotiko berantikorra. Ataria XVII. mende hasierakoa, klasizista. Dorrea XIX. mendearen bukaerakoa.
Borda: XVII. mendearen hasierako upategia. Hormak eta egitura XVII. mende bukaerakoak dira.
Erretoretxea (Altzo Azpi): XVIII. mendearen hasierakoa. Neoklasikoa
Erretoretxea (Altzo Muño): XVIII. mendearen bukaerakoa.
Etxeberri: XVI. mendekoa. XVIII. mendearen hasieran eraberritua
Goikoetxea: XVI. Eta XVII. mendekoa. Tolare gotikoa
Intxaurrondo: XVIII. mendekoa
Ipintza Haundi: XIX. mendearen hasierakoa
Iriarte: XVIII. mendekoa
Jauregi: XVI. mendearen erdialdeko arkua. Errenazimendua
Konderrota: XVII. mendekoa. Hondakinak.
Legarre: XVI. mendearen hasierakoa. Ate eta leiho gotikoak.
Mendizabal: XVII. mendekoa
Oiarbide: XVI. mendeko aztarnak. XVIII. mendean berreraikia.
Olaeta: XIX. mendean eraberritua.
Oregi: XVI. mendeko aztarnak. XVIII. mendearen hasieran eraikia.
Salbatore eliza: 1025. Urteko agiri batek baieztatzen du bazela Olazabalgo San Salbador monastegia. Gaurko eliza, XVI. mendean hasia, XVIII. mendean burutu zen.
Santa Barbara baseliza: XVIII. mendekoa
Segoretxe (Altzo Azpi): XIX. mendearen hasierakoa
Segoretxe (Altzo Muño): XVIII. mendearen bukaerakoa
Udaletxea: XVIII. mendearen erdialdekoa
Zialtzeta: XVIII. mendearen bukaerakoa
Zuaznabar Barrena: XVI. mendekoa. Tolare gotikoa
Zuaznabar Haundi: XVI. mendearen lehen erdikoa. Tolare gotikoa

Historia

Altzoko herria bi gunez osatua dago. Batak Altzo Muño du izena eta besteak Altzo Azpi; bi izen hauek bakoitzaren egoera topografikotik eratorriak dira. Hasiera batean aipatu bi guneak independienteak zirela uste da, eta akordio bat errespetatzen zutela, zeinaren ondorioz urtero auzo bateko edo besteko alkate eta agintariak txandaka hautatzen baitziren.

Altzo Muñoren jatorria Gipuzkoako antzeko beste herri batzuenaren berdintsua dela dirudi. Etxe populatzaileak-en anaigo bat eratzen joan zen, bertakoek eliza bat fundatu zutelarik, gaur egun Santa Barbara ermita dagoen leku berean ziuraski. Ermita hau Asuntzio elizak ordezkatu zuen; azken hau bizilagunek aukeratzen zuten errektore batek zuzentzen zuen.

Altzo Azpiren jatorria, ordea, ezberdina da, Olazabal Ahaide Nagusiari dagokion feudoa baita, etxe honetako oinordekoak zirelarik beraien jabego zen San Salbador elizako errektorea aukeratzen zutenak.

Joan den menderarte Legarre eta Zuaznabar Altzo Azpiri zegozkion, bi baserri hauetako biztanleak Olazabalen maizter baitziren. Altzo Azpiko nagusi zaharren azken maizterra Izagirre zen, eta arrazoi honengatik Altzo Azpiri zegokion baserria kontsideratu izan da gaur arte.

Altzoko dokumentu zaharrena ezagutzen den Gipuzkoako zaharrena da alde berean, eta Antso Gartzes III.a, (Antso Handia) Nafarroako erregearen garaikoa da. 1025.ean Don Gartzia Azenarez nafarra eta bere emazteak, Donna Gaila altzotarrak, Olazabal monasterioa deiturikoa eta bere ondasunak, dokumentuan esaten denez haralarretik (Nafarroako muga) haya eta helcannorainokoak (Gipuzkoako kostaldea) zirenak, San Juan de la Peña Aragoiko monasterioari eman zizkioten. Dohaintza hau Donna Bellasquita Gartzesek, aipatutako Don Gartzia eta Donna Gallaren alabak, bermatu zuen emandako beste agiri batean, 1056.ean. Bertan dohaintza oraindik argiroago adierazten da, aipaturiko parrokia San Salvador de Ipuzsoa (Gipuzkoaren izen zaharra) izenaz titulatuz.

Dokumentu hauetan Gipuzkoaren existentzia lehen aldiz egiaztatzen da Antzinaroti k.


Beranduago, 1374.ean, Altzo Tolosarekin bat egiten zuen kolazio bat izan zen, bere jurisdikzio zibila galduz baina Udaletxea, dermioak, mendiak eta administrazio zibila mantenduz. Egoera horrek 1615.era arte iraun zuen; urte hartan Felipe III.a erregeak Altzori hiri titulua eman zion eta honekin batera Tolosatik bereizketa.

Bere txikitasunagatik Altzok ezin izan zuen Probintzako Juntetan jarleku bat berak bakarrik ordaindu eta honetarako Bozue Nagusia batasuneko partaide egin zen 1617.ean. Elkargo hau Amezketa, Abaltzisketa, Orendain, Ikaztegieta eta Baliarrainek osatzen zuten. Altzok mankomunitate hura 1660.ean utzi zuen Azpuna deituriko batasunarekin bat egiteko (Alegia, Ikaztegieta eta Orendainek osatua). Elkargo honetatik joan den mendearen erdialdera atera zen Altzo, Garai hartan Altzok herrilurrak zabalak zituen (Altzomendi), hauek apurka-apurka galtzen joan zelarik eta jabego pribatuen eskuetara -gehienak bedaioarrak- pasa zirelarik.



ALTZOKO toponimoen mapa





Deskribapena

Gipuzkoako Toloserri eskualdean dagoen hedadura ertaineko (9,8 Km²) udalerria da; Otsabio eta Altzomendi mendien mendebaldeko isurialdetik (812 metro dituena bere puntuik altuenean) eta Araxes eta Oria ibaien ertzetarainо (85 metrokoa punturik baxuenean) zabaltzen da. Lur hauek aro sekundarioko garai triasikoari dagozkio Gipuzkoako alde txiki batzuetan soilik dauden izaera eruptikoko harkaitz ofitiko zatiak ere dituelarik.

Karobiak eta kaolin meategiak lehen eta harrobiak orain oso aintzakotzat hartuak dira bere harri kalitatearengatik. Dermioaren %50a baino gehiago basoak betetzen du, non gaur oraindik kantauriar artadiak eta pagadiak nabarmentzen baitiren. Baso hauek ekoizten zuten egur-ikatz produkzioa garrantzizkoa izan zen bere garaian.

1860.ean egindako erroldan Altzok 576 biztanle zituen, eta geroztik kopuru hau murriztuz joan da, 1996. urteko hasieran 322 biztanle dituelarik. Hauek 53 baserri (batzuk familibikoak eta beste batzuk hutsak) eta 33 etxe txiki (handienak 4 bizitza) eta txaletak betetzen dituzte. Herriak bi eliza eta ermita bat ditu, Altzo Muñon dauden Herriko etxea eta frontoiaz gain. Zeuzkan hiru errotetatik bakar bat mantentzen da une honetan. Jatetxe bat eta sagardotegi bat ere badaude.

Aspaldiko garaietatik Altzo Aralartik kostaldera zihoan altzubide edo abelbide garrantzitsu baten pasaleku izan zen; egun abereen lekualdatze hau sinbolikoa da ia. Baserri guztiek nekazal eta ganadu ustiaketa tradizionala mantentzen dute. Dermioaren %20a baino gehiago belardi eta zelaiak dira, gehienak larreetarako erabiltzen direlarik. Gaur egun patata, babarrun, barazki, sagar eta gaztain eta gaztaren produkzioa murritza da. Beste garai batean Altzoko tipulen ekoizpena oso handia izan zen; tipula hauek oso preziatuak ziren eskualde osoan eta Gipuzkoan, bere kalitate onarengatik. Gaur iharduera hau desagertu egin da ia.



2009 urtarrila **eskala: 1:7500**

ALTZOKO toponimoen mapa

EDUKIA
Mapa toponimikoa mapa (1:7500 eskala)
Ortoargazkia 1: 7500 eskala (2007. urtea)
Kale-izendegiak. Altzo Muño (1:3000 eskala) eta Altzo azpi (1:2000 eskala)

DISEINU ETA ARGITALPEN KARTOGRAFIKOA
Geogrania S.L.
Tel: 943 03 03 50 – 902 99 55 84
www.geogrania.com

ESKER ONAK
Altzoko Udalak eskerrak ematen dizkie Altzoko toponimoen mapa hau egiten parte hartu duten departamendu eta pertsona guztiei.

INFORMAZIO ITURRIAK
Altzoko Udala

KARTOGRAFIA
Gipuzkoako Foru Aldundia,
Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa saila

MUGARRI KILOMETRIKOAK
Gipuzkoako Foru Aldundia,
Bide Azpiegituretako Departamentua

ORTOARGAZKIA
Eusko Jaurlaritza,
Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila

TOPONIMIA
Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Saileurondetzaren datu-basea
Berrikusketa: Euskaltzaindia

OKERREN ZUZENKETA ETA IRADOKIZUNAK
email: altzo@udal.gipuzkoa.net

D.L. / L.G: VI-38/09













